



JABEEN ERKIDEGOETAKO OBREN PREBENTZIOZKO KUDEAKETA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

JABEEN ERKIDEGOETAKO OBREN PREBENTZIOZKO KUDEAKETA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



OSALAN ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita bidea z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94.403.21.90
Faxa: 94.403.21.00
Helbide elektronikoa: osalansc@euskadi.eus

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

Jose Atxotegi, 1 (Helbide berria)
01009 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945.01.68.00
Faxa: 945.01.68.01
Helbide elektronikoa: osalancatga@euskadi.eus

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo bidea, z/g
20012 Donostia
Tel.: 943.02.32.62
Faxa: 943.02.32.51
Helbide elektronikoa: osalancatdo@euskadi.eus

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita bidea z/g (Basatxu Mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94.403.21.79
Faxa: 94.403.21.07
Helbide elektronikoa: osalancatba@euskadi.eus

EGILEAK:

Luis Maria Recacoechea Olavarria.

Osalaneko prebentzio-teknikaria Bizkaian.

Pedro Martínez de Lahidalga Armentia.

Osalaneko Laneko arriskuei aurrea hartzeko arloaren arduraduna Bizkaian.

KOORDINATZAILEA:

Francisco Javier Inda Ortiz de Zárate.

Osalaneko (Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Euskal Erakundea) zuzendariorde teknikoa.

Edizioa: 2016ko iraila

Ale kopurua: 750 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Fotokonposizioa: Bell Comunicación

Inprimaketa: Gráficas Irudi

Lege-gordailua: VI 725-2016

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Atarikoak	9

1. ATALA. SUSTATZAILEA (JE)

1. Jabeen Erkidegoen ohiko jarduketak eta obra motak	11
1.1 Ohiko jarduketak	12
1.2 Eraikuntza-lan motak	13
1.3 Amiantoa	14
2. Jabeen Erkidegoak, sustatzaile	15
2.1 Betebeharrak	16
2.2 Dokumentazioa	18
2.3 Erantzukizunak	20

2. ATALA. SUSTATZAILEA ETA GAINERAKO AGENTEAK

3. Prebentziozko kudeaketa prozesuko fase bakoitzean	23
Proiektua duten obrak. Kudeaketa-eskema	24
Proiekturik ez duten obrak. Kudeaketa-eskema	25
1. fasea. Hasiera eta diseinua	26
2. fasea. Kontratazioa	28
3. fasea. Lanak planifikatzea	32
4. fasea. Egikaritzea	37
5. fasea. Amaiera	40

Araudia	42
----------------------	-----------

Eranskinak:

A1. Galdera ohikoenak (FAQ)	44
A2. Aplikatu beharreko araudia	47
A3. Kontsultatutako bibliografia	48

Aurkezpena

Esku artean duzun argitalpen honen sorrera Jabeen Erkidegoek, agente sustatzaile ez profesionalak izanik, bultzatzen dituzten eraikuntza-lanetan laneko segurtasunari eta osasunari dagozkion gaiak artatu behar izanean datza.

Argitalpen honen helburua da sustatzaileei, eta horiekin batera prozesuan parte hartzen duten agente profesionaleri, prebentzio-araudi konplexua betetzeko egitekoak erraztea, eraikuntza prozesuan zehar prebentziosko kudeaketa eraginkorra lor dadin.

Agente guzti hauek (sustatzaileak, finken administratzaileak, teknikoak, kontratistak...) prozesuaren segurtasun eta osasunarekin zerikusia dute, hasieratik amaiera arte, prebentzio-egitura egokiaren mantenua bermatu nahirik.

OSALANek lantzen dituen jarduera-arloetako bat laneko arriskuen prebentzioaren inguruko ezagutza sortu eta zabaltzea da, ikastaroak, argitalpenak eta formakuntza-ekitaldiak garatuz. Ekimen horiek sektore desberdinetan prebentzio-jardueraren kalitatea hobetzea dute helburu.

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomiaduna da eta bere egitekoen artean dago, segurtasun, higie, ingurumen eta laneko osasunaren alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek ezartzen dituzten politikak kudeatzea, hain zuzen ere, lan-inguruneari datxekzion arriskuen zioak jatorrian bertan ezabatzeke edo murrizteke joera dutenak.

OSALAN osatzen dugun pertsonak laneko arriskuen prebentzioaz eta lan baldintzen hobekuntzaz arduratzen gara, pertsonen ongizateak beraien bizitza lan-giro osasungarrian garatzea eskatzen baitu. Zeregin horrek guztiok behar gaitu.



Izaskun Urien

OSALANeko
zuzendari nagusia

Atarikoa

Jabeen Erkidegoek (JE), besteen artean beren eraikinak zaintzeko betebeharra dela-eta, obrak egin behar izaten dituzte aldi behin, hala nola hobekuntzak, konponketak edo mantentze-lanak. Horregatik, hainbat obraren sustatzaile dira Jabeen Erkidegoak. Lehendakaria dute ordezkari eta honako betebeharrak eta erantzukizun hauek hartzen dituzte beren gain:

Jabeen Erkidegoak (eragile ez-profesionala) eraikuntzari aplikatu dakiokkeen laneko arriskuen prebentzioa (LAP) araudi oso zabal eta konplexu bati aurre egin behar dio, bai eta jarduketa mota horretan ohikoak diren eta hura betetzea zailtzen duten berezko berezitasunei eta aparteko ezaugarriei ere (proiekturik gabeko lanak, iraupen txikikoak...)

Hala, hauteman da lanak egiteko eta kontratatzeke ez dela behar adina ahalegin egin Laneko Arriskuen Prebentzioa aplikatzeko. Horren ondorioz, egitura eskasa eta beste zenbait hutsune dituzten enpresak hautatu ohi dira. Ondorioz, desegituratuta egoteagatik, hobekuntza-tarte handia gerta liteke prebentziozko kudeaketan.

Argitalpen honen helburu nagusia da Jabeen Erkidegoei sustatzaile izateagatik dagozkien prebentziozko eginbeharrak betetzen laguntzea. Halaber, obraren esku hartzen duten gainontzeko agente profesionalak (kontratatzaileak, koordinatzaileak, teknikariak, finen administratzaileak...) zuzendutako oinarritzko gidaliburua ere bada.

Eskuliburua bereizi gabeko bi ataletan egituratuta dago, eta zati bakoitzak honako helburu hauek ditu:

- **1. atala.** Lehendabiziko bi kapituluak. Horietan, kasuan kasuko obraren prebentziozko kudeaketa behar bezala egituratzeko Sustatzaile ez-profesionalak behar duten oinarritzko informazioa biltzen da: 1. kapituluak jarduketaren izaerari, motari eta helmenari buruzkoa da; 2. kapituluak, berriz, Sustatzaileei beren betebeharren eta erantzukizunen berri ematen die, eta zer dokumentazio eska diezaieketen jakinarazten die.
- **2. atala.** 3. kapituluak. Zati horretan, eraikuntza-prozesuko fase bakoitzaren prebentziozko kudeaketaren alderdi guztiak azalduta daude. Sustatzaileek eta gainerako agente profesionalak kapitulu hori kontsulta dezakete prozesuaren jarraipen egituratua egiteko.
- Eskuliburuak honako eranskin hauek ditu: Araudi aplikagarria, Erabilitako bibliografia, Erakundeari maiz egindako galderen erantzunak.

1

1. ATALA. SUSTATZAILEA (JE)

OHIKO JARDUKETAK ETA OBRA MOTAK

1.1 Ohiko jarduketak

Eraikuntza-lantzat edo obratzat jotzen da eraikuntzako edo ingeniari-tza zibileko lanak gauzatzen dituen eta eraikuntza-lanetarako segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren (EED) I. eranskinean partzialki jasota dagoen edozer obra publiko nahiz pribatu.

Zein dira Jabeen Erkidegoek egindako ohiko eraikuntza-lanak?

Jabeen Erkidegoek hainbat obra egin ohi dituzte: kontserbazioko obrak, konponketak, mantentze-lanak, erreformak, hobekuntzak eta obra berriak. Hona hemen ohikoena:

Higiezinaren baldintzak **hobetzeko** obrak:

- **Irisgarritasuna:** igogailuak lehendabiziko aldiz instalatzea edo igogailu berriak jartzea, arkitektura-oztopoak kentzea...
- **Eraginkortasun energetikoa:** galdara berriak jartzea, gas naturala ezartzea, isolatzea...
- **Azpiegiturak:** telekomunikazio-instalazioak, antenak...

Erreforma- edo birgaitze-lanak:

- **Sistema zaharkituak berritzea:** ura banatzeko eta garbitzeko sareak...
- **Eraginkortasun energetikoa:** galdara(k), gas naturala, berokuntza-instalazioak, isolatzeak... bai eta xede horretarako sustatutako fatxadak eta estalkiak berritzea edo konpontzea ere.
- **Estankotasuna:** fatxadak estaltzea, garbitzea edo/eta margotzea, hezetasunari eta kalteei aurre egitea...

Mantentze-lanak: higieztina mantentzeko beharra bermatzeko beharrezkoak direnak (JHLren 10. artikulua). Lan horien helburua izango da dagozkien egitura-, estankotasun-, bizigarritasun- eta segurtasun-baldintzei eustea: erretenak garbitzea, eguzki-plakak mantentzea...

Eraikinen Ikuskapen Teknikoan (EIT) antzemandako hutsuneak zuzentzeko obrak:

- **Egiturazkoak:** zimenduak azpi-berritzea, egitura indartzea eta egokitzea...
- **Estalkiak eta teilatu lauak:** estalkiak eta teilatu lauak irazgaitz bihurtzea...
- **Fatxadak:** kalteei eta estankotasun eta isolamendu faltari aurre egiteko konponketak...
- **Instalazioak:** iturgintza- eta saneamendu-sareak...



Jarduketa horietako zenbaitetan alde aurretik identifikatu eta ebaluatu behar da **amiantoa duten materialak** (ADM) kentzeko aukera.

1.2 Eraikuntza lan motak

Aipatutako jarduketetan, ohikoak izaten dira aldez aurretiko proiekturik gabe gauzatu daitezkeen obrak. Lan horietarako behar den dokumentazioa ez da kudeatzen proiektua duten obra arrunten dokumentazioa bezala.

Alabaina, proiekturik gabeko obretako segurtasun- eta osasun-kudeaketari dagozkion betebeharrak bat datoz Eraikuntza-lanetarako Errege Dekretuak (EED) proiektua duten horientzat ezarritakoekin.

Zein dira eraikin batean amiantoa izan dezaketen eraikuntza-elementu nagusiak?

Proiektuarekin	Proiekturik gabe
<p>Proiektua duten obrak, bai legez eska daitekeelako eta bai, bestela izanda ere, Jabeen Erkidegoak (JE) hala erabaki duelako.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektua idazteko fasean Segurtasun eta Osasun Azterlan bat (SOA) edo Segurtasun eta Osasun Oinarrizko Azterlan bat (SOOA) eratuko da. • Kontratataren erantzukizuna izango da Laneko Segurtasun eta Osasun Plan bat (LSO plana) elaboratzea. 	<p>Aldez aurretiko proiekturik gabe gauzatzen diren obrak. Presazko lanak direnez, ez da proiekturik behar horien izapidetze administratiborako.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiekturik ez dagoenez, ez dago SOArik edo SOOArik, eta, hortaz, ez dago LSO planik. • Kasu horretan, beharrezkoa da kontratistak Obraren Prebentziozko Kudeaketari buruzko Dokumentu (OPKD) bat elaboratzea eta bertan Laneko Arriskuen Ebaluazio Espezifikoa (LAEE) gehitzea.
<p>Obra-lizentzia izapidetzean, Udalak proiektua exijitu dezake ala ez</p>	



Sustatzaileak obra edo haren lan jakinak gauzatzeko langile autonomoak zuzenean kontratatzen baditu, hura langileon kontratistatzat joko da, eta bi betebeharreri erantzun beharko die.

1.3 Amiantoa

Amiantoak kalte egiten dio osasunari. Gaixotasun larriak eragin ditzake, baina badaude hainbat baliabide amiantoaren erabilera kontrolatzeko, ahalik eta arrisku txikiena eragin dezan. Nolanahi ere, prebentzio- eta kontrol-neurriak aplikatzeko, ezinbestekoa da amiantoa duten materialak identifikatzea eta material horiek non dauden zehaztea.

Obra mota horretan, noizean behin topatu egiten ditugu amiantoa eduki dezaketen elementuak, eta horiek kendu edo aldatu behar izaten dugu. Jarduketa horrek garrantzi berezia dauka, eta kudeaketa espezifiko eskatzen du, bai eta esku hartzeko neurri bereziak ere.

Zein dira eraikin batean amiantoa izan dezaketen eraikuntza-elementu nagusiak?

Eraikinetan, amiantoa izan dezaketen eraikuntza-elementu ugari dago. Horiei amiantoa duten materialak deritze. Adierazgarrienak aipatuko ditugu:

- Zuntz-zementuak (zementuzko matrizea eta amiantozko karga bat, ehuneko ezberdinetan):
 - Estalkietako plaka uhinduak, fatxadetako plaka lisoak...
 - Zorrotrenak (euri-urak eta ur zikinak), hodiak, tximiniak...
 - Ur-biltegiak, jardinerak...
- Junturak, isolamenduak, estaldurak (amiantoa osagai nagusi dutenak):
 - Fatxadak eta egiturak isolatzea helburu duten elementuak...
 - Berokuntzako eta etxeko ur beroko (EUB) hodian bero-isolatzaileak...
 - Berokuntza-galderetako eta etxeko ur beroaren instalazioetako junturak.

Zer egin behar du Jabeen Erkidego batek obra bati heltzean ADMak egon daitezkeela uste edo susmatzen badu?

ADMak **identifikatu** eta kontratistari **jakinarazi** beharko dio, obrak hasi baino lehenago:

- Proiektua duten obretan, identifikazio-txostena dagokion SOAren edo SOOaren bitartez aurkeztuko da, kontratistari jakinarazteko betebeharra konplitze aldera.
- Proiekturik gabeko obretan, amiantoa duten materialen identifikazio-txostena Arriskuen Ebaluazio Espezifikoa sartuko da (Obraren Prebentziozko



Ustea edo susmoa izatekotan, egokiena da identifikazio bat gauzatzea Amianto Arriskua duen Enpresen Erregistroan (AAEE) erregistratutako enpresa espezializatu baten bitartez; izan ere, edozein kasutan, **amiantoa izan dezakeen material** (AIDM) gisa sailkatuko lukete eta **amiantoa izan dezakeen** (AIDM) gisa tratatu beharko litzateke.

2

1. ATALA. SUSTATZAILEA (JE)

JABEEN ERKIDEGOAK SUSTATZAILE GISA

2.1 Betebeharrak

Sustatzaitzat joko da obra bat bultzatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridiko. Kasu honetan Jabeen Erkidegoa (JE) izango litzateke.

Halaber, PROIEKTUA DUTEN obrak eta PROIEKTURIK GABEKO obrak bereiziko dira.

Zein BETEBEHAR dituzte Jabeen Erkidegoek proiektua duten obretako sustatzaile gisa?

- Proiektugile bat edo hainbat **izendatzea** dagokion proiektua eratzeko eta idazteko:
 - Horren barruan ere, Segurtasun eta Osasun Azterlan bat (SOA) edo Segurtasun eta Osasun Oinarritzko Azterlan bat (SOOA) eratu beharko da.
 - Proiektugile bat baino gehiago izatekotan, obra-proiektuaren elaboraziorako segurtasun- eta osasun-alorreko koordinatzaile bat **izendatuko da** (PSO koordinatzailea).
- Zuzendaritza Fakultatiboa (ZF) **izendatzea**.
- Obran enpresa batek baino gehiagok, edo enpresa batek eta langile autonomoek, edo hainbat langile autonomok esku hartzekotan, obra-proiektuaren elaboraziorako segurtasun- eta osasun-alorreko koordinatzaile bat (ESO koordinatzailea) **hautatzea** eta **izendatzea**, koordinatzailea izendatzeko akta baten bidez.
- Udalari Obren Udal Lizentzia **eskatzea**.
- Kontratatari/kontratastei arriskuei buruz **jakinaraztea** (Segurtasun eta Osasun Azterlana edo Segurtasun eta Osasun Oinarritzko Azterlana daukan proiektuaren bidez).
- Kontratatari koordinatzailea izendatzeko aktaren kopia **helaraztea** eta hautatutako Zuzendaritza Fakultatiboari (ZB) buruz jakinaraztea.
- Kontratatari lantokia irekitzeari dagokion jakinarazpena idatzi ahal izateko beharrezkoak diren datuak **ematea**.



Sustatzaileak, kontratatari/kontratastei informazioa emateko eginkizunari jarraikiz, SOAn edo SOOAn jaso beharko du, hala badagokio, **amiantoa izan dezaketen materialen** (AIDM) identifikazioa, obrak hasi baino lehenago.

2.1 Betebeharrak

Proiekturik ez izatekotan, ez da SOArik edo SOOArrik egongo, eta, hortaz, ez da Laneko Segurtasun eta Osasun Planik (LSO plana) izango.

Zein BETEBEHAR dituzte Jabeen Erkidegoek, sustatzaile gisa, obrak proiekturik GABE egikaritzekotan?

- Proiektua duten obren kasuan adierazitako kasu berdinetan, obra egikaritze bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat **izendatzea** (ESO koordinatzailea), koordinatzailea izendatzeko akta baten bidez.
- Udalari Obren Udal Lizentzia **eskatzea**.
- Kontratatari/kontratistei arriskuen **berri ematea**.
 - Kokalekuak eragindakoak:
 - Gasaren, elektrizitatearen, uraren eta abarren eroanbideak.
 - Ibilgailuen zirkulazioa...
 - Merkataritza-lokaletan, bulegoetan edota beste enpresa batzuetan jarduera egotea. Jarduera horiek arrisku larriak edo oso larriak eragiten badituzte, horien ebaluazioa egin eta idatziz eman beharko du haren berri.
 - Enpresak eta langile autonomoak batera aritzeak eragindako arriskuak.
 - Aplikatu beharreko larrialdi-neurriak.
- Kontratatari koordinatzailea izendatzeko aktaren kopia **helaraztea** (hala badagokio) eta, obraren teknikari zuzendari bat izendatzekotan, horren berri ematea.
- Kontratatari lantokia irekitzeari dagokion jakinarazpena idatzi ahal izateko beharrezkoak diren datuak **ematea**.



Sustatzaileak, kontratatari/kontratistei informazioa emateko eginkizunari jarraikiz, jaso egin beharko du, hala badagokio, **amiantoa izan dezaketen materialen** (AIDM) identifikazioa, obrak hasi baino lehenago.

2.2 Dokumentazioa

Alde batetik, sustatzaileak enpresa kontratistei eska diezaiekeen dokumentazioa, eta, bestetik, obra egin bitartean esku hartzen duten gainerako agenteei eska diezaiekeena.

Zer agiri galdatu behar diote Jabeen Erkidegoek enpresa kontratistei sustatzaile gisa?

Bai proiektua duten obretan, bai proiekturik gabekoetan, sustatzaileak, gutxienez, honako dokumentazio hau eskatu behar dio kontratistari:

- Enpresa Bermatuen Erregistroko (EBE) izen-ematea.
- Lantokia irekitzeari buruzko komunikazioa eta aurkeztutako dokumentuaren kopia.
- Enpresa kontratistaren prebentziozko modalitatea.
- Laneko Segurtasun eta Osasun Plana (LSO plana), obra egikaritze bitarteko segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak onartua, edo, hala badagokio, Arriskuen Ebaluazio Espezifikoa (AEE), segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak gainbegiraturako Obraren Prebentziozko Kudeaketari buruzko Dokumentuan jaso.
- Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoelako ziurtagiria: TC1 eta TC2.
- Erantzukizun Zibileko Aseguru eguneratua eta istripu-estaldura.
- Azpikontrazioari buruzko legea betetzea: Azpikontrazio Liburua, azpikontrazio-mailak eta langileen prestakuntza.
- Prestakuntza, informazioa, osasun-gaitasuna eta laneko ekipamendua erabiltzeko baimena.
- Prebentziozko baliabideak izendatzea, hala dagokionean, edo/eta enpresako langileak izendatzea obrako segurtasuna kontrola dezaten.



Desamiantatze-enpresa, **amiantodun materialak** (AM) kentzekotan:

- Amianto Arriskua duen Enpresen Erregistroan (AAEE) izena ematea.
- Amiantoa kentzea helburu duen lan-egitasmoa, Lan Agintaritzaren aldeko ebazpenarekin batera.

2.2 Dokumentazioa

Azpikontratzaileek eta langile autonomoek aurkeztu beharreko gutxieneko dokumentazioa kontratari eskatutako dokumentazio bera da. Halaber, aintzat hartu behar da, hainbatetan, esku hartzen duten beste eragile batzuei ere hainbat dokumentu eskatzea komeni dela.

Zer agiri galdatu behar diete Jabeen Erkidegoek gainerako eragileei sustatzaile gisa?

- **Azpikontratzailea**, dagokion kontratistaren bitartez:
 - Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
 - Amianto Arriskua duten Enpresen Erregistroko (AAEE) izen-ematea.
 - Prebentziozko modalitatea hartu duela egiaztatzen duen agiria.
 - Prebentzio-arloan arituko den solaskide bat izendatzeari dagokiona.
 - Prestakuntza, informazioa, osasun-gaitasuna eta laneko ekipamendua erabiltzeko baimena.
- **Langile autonomoa(k)**, dagokion kontratistaren bitartez:
 - Langile autonomoak Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legea (LAPL) betetzetik salbuetsita daude. Hala ere, enpresa-jardueren koordinazioaz diharduen 24. artikulua bete behar dute.
 - Eraikuntza-lanetarako 1627/1997 Errege Dekretuaren (EED) 12. artikuluan jasotako betebeharrak konplitu beharko dituzte.
- **Segurtasun eta osasuneko koordinatzailea:**
 - LSO Planaren onespenezko akta edo, hala badagokio, Obraren Prebentziozko Kudeaketari buruzko Dokumentuaren (OPKD) ikuskapena.
 - Koordinazio-bileren aktak.
 - Koordinatzailearen jarraibideak.



Hainbat fasetan, baliteke eragile ordezkariak kudeatzea sustatzaileak jasotzen dituen agiriak: finen administratzaileak, Zuzendaritza Fakultatiboak, obra egikaritze bitarteko segurtasun-eta osasun-koordinatzaileak.

2.3 Erantzukizunak

Zer erantzukizun hartzen dute beren gain Jabeen Erkidegoek sustatzaile gisa?

Jabeen Komunitateek laneko segurtasun eta osasunaren arloan sustatzaile gisa eduki ditzaketen erantzukizunak **administrazio-arlokoak**, **arlotu zibilekoak** edo **zigor-arlokoak** izan daitezke, bai eta **gizarte-segurantzaren prestazio ekonomikoen balizko errekarguak** ere.

Erantzukizun zibila

Biktimari kalte-ordaina ematea, egindako okerrak osatze aldera. Hainbat erantzukizun zibil mota daude:

- Kontratuko erantzukizun zibila (Kode Zibileko 1.101. artikulua), kontratuko harreman juridikoa ez betetzeagatik.
- Kontratuz kanpoko erantzukizun zibila. Erantzukizun zibil mota hau ez dago alde aurreko kontratu-harremanean oinarrituta, baizik eta beste norbaiti kaltea egiten dioten ekintzetan, egin ezean... (Kode Zibileko 1.902. artikulua)
- Zigor-erantzukizunetik eratorritako erantzukizun zibila, arau-hauste penala egitearen ondorioz.

Kalte-galerengatiko erantzukizun zibila aseguruaren xede izan daiteke.



Langile batek kalte-galerengatiko erantzukizun zibila Jabeen Erkidegoaren aurka gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da hark lan-istripu bat edo laneko gaixotasun bat sufritu izana Jabeen Erkidegoak prebentzio-arloko betebeharrak bete ez izanaren ondorioz.

2.3 Erantzukizunak

Administrazio erantzukizuna

Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako arau-hauste administratiboak egiteagatik. Lehenik, espediente izapidetuko da, eta, ondoren, dagokion zehapen administratiboa ezarriko da (54/2003 Legeak aldatutako Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina den 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 2. artikulua).

Administrazio Publikoak abiarazten du, Jabeen Erkidegoak bere prebentzio-arloko betebeharrak ez konplitzeagatik. Hori administrazioko arau-hauste gisa sailka daiteke, langileak lan-istripu bat ala laneko gaixotasun bat sufritu izana gorabehera..

Administrazio-erantzukizunak zigor ekonomikoak ezartzea dakar.

Zigor-erantzukizuna

Erantzukizun mota hori sortzen da, legeak hala ezartzen badu ere, sustatzaileek ez dituztenean langileen esku jartzen beren jarduera egiteko behar dituzten segurtasun- eta higiene-neurriak, eta, horren ondorioz, langileen bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean. Arriskuko delituak deritze horiei (Zigor Kodeko 316., 317. eta 318. artikulua).

Erantzukizun hori sortzeko, ez da ezinbestekoa kalterik eragitea. Nahikoa da langilearen bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jarri izana.

Jabeen Erkidegoetan, erantzukizun hori haien ordezkariena da (lehendakariarena, kudeatzailearena, idazkariarena) pertsona fisiko moduan, kasu bakoitzaren eta baldintzen arabera.

2.3 Erantzukizunak

Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoei buruzko errenergua.

Langileek, lan-istripu edo laneko gaixotasun bat pairatuz gero, eskubidea dute Gizarte Segurantzaren derrigorrezko prestazio ekonomikoak jasotzeko. Prestazio horien guztien zenbatekoak (aldi baterako ezintasuna, ezintasun iraunkorra, baliaezintasun handia, alarguntza-pentsioa...) Jabeen Erkidego batek laneko arriskuei buruzko arauak ez betetzeagatik jasotzen badira, % 30-50 artean hazten dira, larritasunaren arabera (Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 164. artikulua).

Prestazioen errenergua ordaintzeko erantzukizuna ezin da aseguruaren xede izan.



Erantzukizun bateragarriak:

Administratiboa eta zibila
Penala eta zibila

Erantzukizun bateraezinak:

Administratiboa eta penala

3

2. ATALA. SUSTATZAILEA ETA GAINERAKO AGENTEAK

PREBENTZIOZKO KUDEAKETA ERAIKITZE PROZESUKO FASEETAN

Proiektua duten obrak. Kudeaketa-eskema

JABEEN ERKIDEGOA (SUSTATZAILEA) PROIEKTUA DUTEN OBRETAN

FASEAK

DISEINUA

KONTRATZIOA

PLANIFIKAZIOA

GAUZATzea

AMAITZEA

SUSTATZAILEA

- Proiektugilea izendatzen du proiektua egiteko, SO edo SOOA azterlan eta guzti (proiektugile bat baino gehiago badira, PSO proiektuaren koordinatzailea izendatu)
- AM badagoela susmatzen du: Identifikazioa SO/SOOA azterlanean
- Behar den dokumentazioa biltzen du "obra-lizentzia" lortzeko

SUSTATZAILEA

- Proiektugile(ar)en, PSO-koordinatzailearen (beharrezkoa bada) eta SO azterlanerako (i/proiektua) gaitasuna duen teknikariaren kontratazio efektiboa
- Zuzendaritza fakultatiboa kontratatzen du eta, enpresa bat baino gehiago badira, GSO-koordinatzailea hautatzen eta izendatzen du
- Obra egiteko kontratista egokia/k kontratatzen du/ditu.
- AM egonez gero: AAEEan erregistratutako enpresak kenduko du

SUSTATZAILEA

- SO/SOOA azterlana duen proiektua

GSO-KOORDINATZAILEA

- LSO plana onartzen du

KONTRATISTA

- LSO plana egiten du, proiektuan idatzitako SO edo SOOA azterlanean oinarrituta

AZPIKONTRATISTAK

- Lan-prozedurak

LA

- Lan-prozedurak

KONTRATISTA, AZPIKONTRATISTA eta LA

- LSO planeko planifikazioaren arabera gauzatzen dute

SUSTATZAILEA

GSO-KOORDINATZAILEA

- LSO planaren aldatetak onartzen ditu (eranskinak).
- Obraren jarraipena

KONTRATISTA

- Batziko aldatetak eguneratzen ditu onartutako LSO planean egindako planifikazioaren gainean (eranskinen bidez)

ZF


- Eraikinaren liburua

KONTRATISTA

- Obrari lotutako dokumentazioa (erabilera eta mantentzea)
- Azpikontratazio-liburuaren kopia

SUSTATZAILEA

Proiekturik ez duten obrak. Kudeaketa-eskema



1. fasea. Jarduketan hasiera eta obraren

Laneko arriskuen prebentzioa (LAP) obratan integratzearen sostengua sustatzailearen eta gainerako eragileen (proiektugilea, segurtasun eta osasuneko koordinatzailea, kontratista...) arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarritzen da, eta obraren diseinuari dagokion hasierako fasean abiarazi behar da.

Zer jarduketa hartu behar dute kontuan Jabeen Erkidegoek obra baten hasierako diseinufase horretan?

Sustatzaileak jarduketan asmatze-fasean kontuan hartu beharreko lehen auzia da Jabeen Erkidegoan gauzatu nahi diren obrak **eraikuntza-lantzat** hartzen diren ala ez egiaztatzea.

Eraikuntza-lan motak izeneko 1.2. atalean adierazi den moduan, badira aldeak, obrak proiektuarekin ala proiekturik gabe gauzatzearen arabera.

Proiektuarekin

- Sustatzaileak proiektugile bat edo hainbat **hautatuko du** proiektua elaboratu dezaten. Sustatzaileak proiektugile bat baino gehiago hautatzekotan, obra-proiektuaren elaboraziorako segurtasun- eta osasun-alorreko koordinatzaile bat izendatuko beharko du (PSO koordinatzailea).
- Sustatzaileak teknikari gaitu bat **hautatuko du** SOA edo SOOA bat elaboratu dezan, proiektuan bertan integratutako dokumentua.
- Sustatzaileak arriskuen eta jardueren berri eman beharko die proiektugileari eta/edo teknikari gaituari.

Proiekturik gabe

- Sustatzaileak obra egikaritzearekin lotutako arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa bildu beharko du, bereziki kokalekuaren ondorio diren arriskuen ingurukoa, bai eta hainbat enpresaren jarduerak batera gauzatzetik datozen arriskuei buruzkoa ere.



Amiantoa duten materialak (ADM) egon daitezkeela pentsarazten duten kasuan.

- Proiektua duten obrak: ADMak identifikatzeko txosten bat idatziko da, hura SOA edo SOOA azterlanetan jasota uzteko xedez.
- Proiekturik gabeko obrak: ADMak identifikatzeko txosten bat idatziko da, kontratista jakinaren gainean jartzeko xedez.

1. fasea. Jarduketan hasiera eta obraren

Noiz da beharrezkoa proiektugilea(k) hautatzea?

Obra motaren arabera legez proiektu bat eska daitekeenean, administrazioan izapidetze aldera, edo, hala ez izanik, Jabeen Elkarrekin berak hura idatz dadila erabaki duenean. Dagokion udalari Obren Udal Lizentzia eskatzean, baimena eskuratzeko hura derrigorrezkoa den ala ez adierazten digu.

LAPari dagozkion zer alderdi jaso behar dira proiektuan?

Proiektugileak, proiektuaren asmatze-fasean erabakian hartzean, kontuan izan beharko ditu prebentzioaren printzipio orokorrak, eta LAPa hartuko du barnean.

Proiektuaren beste kapitulu baten moduan jasotako SOA edo SOOA azterlana elaboratzen duen teknikari gaituak (proiektugileak berak, hala badagokio) gainerakoarekiko koherentziari eutsiz garatu beharko du, eta obra gauzatzeak dakartzan arriskuei dagozkien prebentzio-neurriak jaso.

Zer gertatzen da obra-proiektuaren idazketa-fasean proiektugile bat baino gehiago badago?

Sustatzaileak proiektugile bat edo hainbat hautatu ahaliko du obra-proiektua elaboratu dezaten.

Sustatzaileak proiektugile bat baino gehiago hautatzekotan, obra-proiektuaren elaboraziorako segurtasun- eta osasun-alorreko koordinatzaile bat izendatuko beharko du (PSOK).

PSO koordinatzaile horrek LAPa proiektuan integratu dadila bermatuko du eta SOA edo SOOA elaboratzeko erantzukizuna hartuko du (edo hautatutako teknikariak, hala badagokio).

Nork elaboratzen du SOA edo SOOA?

Teknikari gaituak elaboratuko du. Prebentzioaren inguruko prestakuntza izan beharko du eta sustatzaileak hautatu beharko du.

Beharrezkoa denean proiektuaren elaboraziorako segurtasun- eta osasun-alorreko koordinatzaile bat egotea, berari egokituko zaio aipatutako azterlana egitea edo eginaraztea, bere erantzukizunpean.



Edozein kasutan, lanak ez badira eraikuntza-lantzat hartzen (EEDaren ondoretarako), nahi-taezko prebentzio-neurriak eta koordinazio-bitartekoak ezarri beharko dira langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko (enpresa-jarduerekin koordinazioaren arloko LAPari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen 171/2004 EDarekin eta lantokietako gutxiengo segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 EDarekin bat etorrita...)

2. fasea. Kontratazioa

Sustatzaileak baliabideak ezarri beharko ditu lanak obraren ezaugarrien arabera zuzendu eta egikaritze-ko, eta, horretarako, dagozkion teknikariak hautatuko ditu eta lanak egikaritzeko egokia(k) deritzon/deritzen enpresa(k) **kontratatu d(it)u**.

Zer eragilek hartzen du esku Jabeen Erkidegoaren obra batean sustatzaile gisa?

Obrak proiektuarekin ala proiekturik gabe egiten diren aintzat hartuta kontratatuko du sustatzaileak.

Proiektuarekin

- Diseinuari dagokion 1. fasean adierazi dira jada sustatzaileak aldi horretan hautatu beharreko teknikariak: **Proiektugilea(k)** eta **PSO** koordina-tzailea (hala badagokio), eta SOA edo SOOA elaboretuko duen **teknikari gaitua**.
- Kontratazioa izeneko 2. fase horretan, sustatzaileak **Zuzendaritza Fakultatiboa (ZF)** hautatu beharko du, obra egikaritzearen zuzendaritzaz eta kontrolaz arduratu dadin.
- Enpresa batek baino gehiagok, edo enpresa batek eta langile autonomoek, edo hainbat langile autonomo esku hartu behar dutenean, sustatzaileak **ESO koordinatzaile** bat hautatuko du.
- Obrak egikaritzeko, sustatzaileak enpresa **kontratista** bat edo gehiago kontratatuko du, eta horiek, aldi berean, azpikontratistak edo langile autonomoak kontratatu ahalko dituzte, hala badagokio.

Proiekturik gabe

- Proiekturik ez egotean, ez da proiektugilerik, PSO koordinatzailearik edo ZFrik izango. Kasu horretan, **gomendagarria** da sustatzaileak enpresa edo teknikari bat kontratatzea **aholku-larritza-lanak** egiteko.
- Proiektua duten obretan bezala, enpresa batek baino gehiagok, edo enpresa batek eta langile autonomoek edo zenbait langile autonomo esku hartu behar dutenean, **ESO koordinatzaile** bat hautatuko du sustatzaileak.
- Obrak egikaritzeko, sustatzaileak enpresa **kontratista** bat edo gehiago kontratatuko du, eta horiek, aldi berean, azpikontratistak edo langile autonomoak kontratatu ahalko dituzte, hala badagokio.



Aipatutako obrako eragileak hautatzeak ez du sustatzailea salbuetsiko laneko arriskuen prebentzioaren alorrean dauzkan erantzukizunez.

2. fasea. Kontratazioa

Zer gertatzen da obra bati dagokion proiektua lantzea proiektugile bat baino gehiagori eskatzen zaion kasuan?

Kasu honetan JEK, Sustatzaile gisa, PSO koordinatzailea izendatu beharko du, LAParen esparruan proiektugileen arteko beharrezko koordinazioa bermatuko duena.

Zein desberdintasun sortzen dira kontratista bat ala batzuk kontratatzean?

JEK aukera biak planteatu ditzake, baina zenbait enpresa kontratatzean, horietako bakoitzak kontratista-izarrerari dagokion betebeharrak hartzen ditu, eta egoera horrek ESO koordinatzaileak egin beharreko koordinazioan konplexutasun handiago dakar.

Zer gertatzen da ADMen identifikatze eta ondorengo kente-lanen kasuan?

Amiantoaren kentezko kontratatu den enpresa kontratatua edo azpikontratatu Amiantoaren eragindako Arriskuak dituzten Enpresen Erregistroan (RERA) inskribatua egon beharko da.

Zer gertatzen da zuzenean Jabeen Erkidegoak Langile Autonomoa/k kontratatzen dituen kasu berezian?

Obra bat edo bertako lan zehatz batzuk burutzeko Sustatzaileak zuzenean langile autonomoak kontratatzen dituzenean (azken hauek aldi berean beren gain langilerik eduki gabe), Sustatzailea izateaz gain, haiei dagokienez **Kontratista**-izaera bereganatuko du, EDDan agindutakoa xede azanik.



Kontratazio-mota hau ez da batere gomendagarria, kontratista-izaeraren erantzukizunak Jabeen Erkidego baten gaitasunetatik kanpo baitaude.

2. fasea. Kontratazioa

Nor izan daiteke obra egikaritze bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile eta zer funtzio betetzen du?

Obra egikaritze bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea zuzendaritza fakultatiboan integratutako teknikari gaitua da, sustatzaileak hautatua obra egikaritzen den bitartean bete beharreko zereginak gauzatzeko. Horiek aipatu egiten dira eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren (EED) 9. artikuluan.

Haren funtzioak bete behar dituzte eraikuntza-obretako segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen rola betetzeko «gaitasuna ematen duten titulazio akademiko eta profesionalak» dituztenek. Funtzio horiek, proiektua elaboratu eta obra egikaritu bitartean, **arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoarenak** izango dira, beren gaitasunen eta espezialitateen arabera.

Derrigorrezkoa ez izan arren, **gomendagarria** izango litzateke horrez gain eraikuntza-obretarako «laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza egokia» edukitzea: EEDaren Gidaliburu Teknikoak bere 2. eranskinean proposatu egiten du 1627/1997 EDaren arabera segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile-funtzioak gauzatzeko Prestakuntza Programaren Gutxiengo Edukia, 11 modulutan egituratua eta 200 ikastordurekin guztira.

Noiz da beharrezkoa obra egikaritze bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat?

Proiektuarekin ala proiekturik gabe egikaritzea gorabehera, eraikuntza-lanetan enpresa batek, edo enpresa batek eta langile autonomoek, edo hainbat langile autonomok esku hartzekotan, sustatzaileak **ESO koordinatzaile** bat hautatuko du.



ESO koordinatzaile delakoa izendapen-**akta** bidez hautatuko da, eta sustatzaileak berak **izen-datuko** eta **kontratatu**ko du.

2. fasea. Kontratazioa

Balizko zer egoeratan da beharrezkoa ESO koordinatzaile bat izendatzea?

Hurrengo taulan aukera desberdin guztiak adierazi dira:

BALIZKO EGOERAK	INTERPRETAZIOA	KOORDINATZAILEA EGIKARITZEA
<ul style="list-style-type: none"> Kontratista bat. Aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) bat. Langile autonomo bat eta bere ardurapeko beregaineko langile bat edo gehiago. 	ENPRESA BAKARRA	EZ
<ul style="list-style-type: none"> Bi kontratista edo gehiago. Kontratista bat eta azpikontratista bat edo gehiago. Beste enpresa bat azpikontratitzen duen aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) bat, haietako bat osatzen dutelarik. 	HAINBAT ENPRESA	BAI
<ul style="list-style-type: none"> Kontratista bat eta langile autonomo bat. Aldi baterako enpresa-elkarte bat eta langile autonomo bat. Langile autonomo bat eta bere ardurapeko beregaineko langile bat edo gehiago, eta beste langile autonomo bat. 	ENPRESA BAKARRA ETA LANGILE AUTONOMOAK	BAI
<ul style="list-style-type: none"> Bi langile autonomo edo gehiago. 	ZENBAIT LANGILE AUTONOMO	BAI

Nortzuek osatzen dute Zuzendaritza Fakultatiboa (ZF) eta zein dira beren funtzioak?

Sustatzaileak hautatutako teknikari gaitua(k) d(ir)a, eta proiektua duten obren zuzendaritzaz (obra-zuzendaritzaz) eta egikaritzearen kontrolaz (egikaritze-zuzendaritzaz) arduratzen dira. Halakorik behar ez dutenetan, sustatzaileak aukeratu beharko du nork izango duen egikaritze-lanak zuzentzeko, koordinatzeko eta gainbegiratzeko ardura.

Gomendagarria da laneko segurtasun- eta osasun-arloko ezagutzak eduki ditzala, egikaritze-lanetan hartzen diren erabakien multzoan prebentzioa integratze aldera.



Sustatzaileak ez badu segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat hautatzen edo ez bada beharrezkoa, Zuzendaritza Fakultatiboak (ZF) honako betebeharrak hartuko ditu bere gain, beste batzuen artean:

- Segurtasun- eta osasun-plana onestea (onespen-akta).
- Beharrezko prebentzio-neurriak hartzea, bakar-bakarrik baimendutako pertsonak sartu ahal izan daitezen obran.

3. fasea. Plangintza

Plangintza funtsezkoa da lanak egokiro gauzatu daitezen, eta fase horretan batera hartu behar dira kontuan produkzioari eta prebentzioari dagozkien alderdiak.

Jarraian azalduko da zer jarduketa dagozkion eragile guztiak nahasten dituen fase horri, bertan esku hartzen baitute sustatzaileak, kontratistak, azpikontratek eta autonomoek, bai eta ESO koordinatzaileak ere.

Nola hartzen du esku Jabeen Erkidegoak plangintza-fasean?

Sustatzaileak zainduko du laneko arriskuen prebentzioa obrako lanen plangintzan integra dadila, eta diseinu-fasean zehar eskuratutako beharrezko informazioa kontratistari helaraziko dio. Hala, hark obraren prebentziozko jardueren plangintza egin ahal izango du.

Proiektuarekin

- Sustatzaileak kontratistari proiektua helaraziko dio, eta haren barruan, dagozkion SOA edo SOOA.
- Sustatzaileak obrarako hautatutako ESO koordinatzailearen berri emango dio kontratistari.

Proiekturik gabe

- Sustatzaileak kontratistari jakinaraziko dizkio kokalekuari dagozkion arriskuak (gasa, elektризitatea, ura eta abar erooten duten hodiak) eta enpresen eta jardueren aldiberekotasunaren ondorio direnak, bai eta aplikatu beharreko larrialdietarako neurriak.
- Sustatzaileak obrarako hautatutako ESO koordinatzailearen berri emango dio kontratistari.

Zer betebeharrak dauka kontratistak plangintza-fasean?

Kontratisten nahiz azpikontratisten ardura izango da LSO planean edo, hala badagokio, OPKDan jasotako neurriak modu zuzenean gauzatzea, haiek kontratatutako langile autonomoei dagokienez.

Proiektuarekin

- LSO plana elaboratu eta idatzi beharko du, eta azpikontratei eta langile autonomoei (hala badagokio) helarazi beharko die, hura ezagutu dezaten.
- Bere ardura izango da Segurtasun eta Osasun Planean jasotako neurriak modu zuzenean gauzatzea.

Proiekturik gabe

- Laneko Arriskuen Ebaluazio Espezifikoa (LAEE) jasotzen duen OPKDa elaboratu eta idatzi beharko du.
- Dokumentu hori helarazi beharko die azpikontratei eta langile autonomoei (hala badagokio), hura ezagutu dezaten.



Bi dokumentuetan, horiek elaboratze aldera, kontratistak bere Prebentzio Zerbitzuaren (PZ) aholkularitza eta laguntza jaso beharko du.

3. fasea. Plangintza

Zer betebeharrak dauka ESO koordinatzaileak plangintza-fasean?

ESO koordinatzaileak zaindu egingo du prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatu daitezela plangintzan jasotzen diren erabaki teknikoetan eta antolamendu-erabakietan.

Proiektuarekin	Proiekturik gabe
<ul style="list-style-type: none"> ESO koordinatzaileak, obra hasi baino lehen, LSO plana onetsiko du Onespen Aktaren bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> Obraren Prebentziozko Kudeaketari buruzko Dokumentua (OPKD) ez dago onespenez izapide formalen mende, baina ESO koordinatzaileak, hura ikuskatzeaz gain, oniritzia emango dio eta/edo beharrezko aldaketak iradokiko ditu.

Zer betebeharrak daukate azpikontratek eta langile autonomoek plangintza-fasean?

Enpresa **azpikontratek** plangintza-fasean duten betebeharrak nagusia kontratistari **informazioa helaraztea** da, bai beren jarduerarekin lotutako arriskuei buruz, bai horiek desagerrarazteko edo txikiagotzeko prebentzio-neurriari buruz. Horrek berekin dakar prebentzioak ukituko dituen berezko lan-prozedurak transmititzeko betebeharra.

Kontratistaren aurrean idatziz egiaztatu behar dute gauzatu egin dutela, kontratatutako obretarako, laneko arriskuen ebaluazio espezifikoa (LAEE) eta beren prebentzio-jardueraren plangintza.

Aipatutako enpresetako **prebentzio-zerbitzuak** (PZ) aholkularitza eta laguntza emango dute laneko arriskuen prebentzioaren arloan dituzten betebeharrak konplitzeari dagokionez.

Era berean, **langile autonomoek** kontratatu dituen enpresari jakinaraziko diote bertan elkartutakoek zer arrisku jasan dezaketen eta zer prebentzio-neurri aplikatu behar den.



ADMak kentzekotan, desamiantatzeko kontratatutako enpresak lan-egitasmoa elaboratu beharko du, eta Lan Agintaritzari aurkeztu hura onetsi dezan.

3. fasea. Plangintza

Proiektu bat elaboratzea galdatzen ez duten obraren kasuan, araudiak (TIN/1071/2010 Aginduak) LAEEa eskatzen du lantokia irekitzeko eskaera egiteko.

Hala ere, kontuan hartuta prebentzio-jardueraren plangintza egiteko eta enpresa-jarduerak koordinatzeko beharra, gure prebentzio-ikuspuntutik gomendagarria da obraren prebentziozko kudeaketari buruzko dokumentua (OPKD) delakoa elaboratzea, eta bertan arriskuen ebaluazioa integratuta egotea, lege-eskakizun hori betearazteko modu gisa.

Zer da eta zertan datza Obraren Prebentziozko Kudeaketari buruzko Dokumentua (OPKD)?

- Proiekturik gabeko obretan, OKPDak kontratistari ahalbidetzen dio obraren prebentzio-jarduerak kudeatzea eta, hala badagokio, enpresa azpikontratisten eta langile autonomoen jarduketak koordinatzea, LSO planei proiektua duten obretan ematen zaienaren antzeko helburuarekin.
- Bere helburua obra planifikatzea, antolatzea, koordinatzea eta kontrolatzea da, modu horretan baterako lan-prozedurak eta larrialdietarako neurriak modu koherente eta koordinatuan aplikatzeko (enfasi berezia egin nahi da jardueren aldireratasunean).
- Kontratistak bere prebentzio-zerbitzuaren aholku eta laguntzarekin elaboratuko du, azpikontratistek eta langile autonomoek erantsitako prebentzio-neurriei eta prozedurei buruzko informazioan oinarrituta, bai eta sustatzaileak hari aurretik helarazitako informazioaren arabera ere.
- Dokumentuak obraren errealitatea islatu beharko du eta arreta berezia emango die jarduketa jakinei berezkoak zaizkien arriskuei eta neurriei, eta kontsultarako praktikoa izan beharko du.
- Kontratistaren mende dauden langile guztien segurtasuna eta osasuna (enpresa azpikontratista eta langile autonomoena barne) bermatzeko beharrezkoak diren neurrien multzoa jasoko du.
- LSO planaren moduan, OPKDa arriskuak identifikatzeko eta prebentzio-neurriak ezartzeko oinarritzko tresna izango da, eta LAEEa hartuko du barne.
- LSO planetarako ezarritako onespenezkoen mende ez dagoenez, ESO koordinatzaileak ikuskatu beharko du. Berdin gertatuko da hura egokitzen eta/edo aldatzen bada.



Proiekturik gabeko obretan, ADMak identifikatzeko txostena arriskuen ebaluazioan eta, hor-taz, OPKDan jaso beharko da.

3. fasea. Plangintza


Zer alderdi landu behar du Prebentziozko Kudeaketak proiekturik gabeko obretan?

Proiekturik gabeko obra batean aplikatu daitezkeen prebentziozko kudeaketa definitzeko, beharrezkotzat jotzen da hurrengo alderdiak jorratzea (OPKDan landutakoak):

- Jardueran parte hartzen duten eragileak.
- Arriskuen identifikazioa eta, hala badagokio, ebaluazioa; hau da, LAEEa.
- Beharrezko prebentzioaren zehazpena obra hasi baino lehen.
- Enpresa-jardueren koordinazioa, EEDarekin bat etorrira.

Zer informazio-iturri ahalbidetzen dute kontratistak OPKDa elaboratzea?

Ondoko eskeman irudikatu da zer informazio-iturri nagusi behar den kontratistak dagokion OPKDa behar bezala elaboratu ahal izateko:



Kontratistari jakinarazi beharreko **arriskuak** (bai sustratzaileak berak lantokian bertan sufri ditzaketenak, bai langile autonomoek jarduera arriskutsuengatik sufri ditzaketenak...) **larritzat** edo **oso** larritzat jotzen direnean, **idatziz** jakinarazi beharko dira.

4. fasea. Egikaritzea

Aurreko etapetan jatorria duten balizko disfuntzio edo eskasia guztiek eragin negatiboa izango dute obraren egikaritzearen fase erabakigarri horretan, eta azkenean ondorioak izango dituzte LAPan.

Nola hartzen du esku Jabeen Erkidegoak obraren egikaritze-fasean?

Kontratatari, azpikontrastei eta langile autonomoei obraren prebentziozko kudeaketa erraztuko dioten baliabideak eskura edukitzeko eta ESO koordinatzailearen bitartez segurtasun- eta osasun-baldintzen koordinazio- eta ikuskapen-lana gauzatzeko betebeharrak orokorrari jarraikiz, sustatzaileak honako hau egin beharko du fase horretan:

- Kontratatari lantokia irekitzeari dagokion jakinarazpena egin ahal izateko beharrezkoak dituen datuak emango dizkio, hori beteko dela bermatze aldera.
- Obrak egin bitartean aldaketan gauzatzen badira, sustatzaileak kontratatari jakinaraziko dio hark LSO plana edo, hala badagokio, OPKDa eguneratu ahal izateko.

Zer funtzio dauka ESO koordinatzaileak eta/edo Zuzendaritza Fakultatiboak obrak egikaritu bitartean?

Bere funtzio nagusia da kontratistek, azpikontrastek eta langile autonomoek obraren egikaritzean zehar prebentzio-ekintzaren printzipioak (31/1995 Legearen 15. art.) aplikatu ditazatela zaintzea, bereziki EEDaren 10. artikuluan aipatzen diren zereginen edo jardueren kasuan.

ESO koordinatzaile bat izendatzea derrigorrezkoa ez denean, gogorarazi beharra dago ZFak hartuko dituela bere gain funtzio horiek.

- Obrarako sarbidea kontrolatzeko egokiak diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta kontrol- eta segimendu-neurriak aplikatu ere: koordinazio-bilerak, jarraibideak, bisitaldiak...
- Jabeen Erkidegoan lantokiak (bulegoak, saltokiak...) egotekotan, ESO koordinatzaileak koordinatuko ditu sustatzailearen, kontratistaren eta enpresari titularren arteko elkarrizketak.

Proiektuarekin

- Obraren Gorabeheren Liburu bat egongo da LSO planaren kontrola eramateko eta segimendua egiteko.
- ESO koordinatzaileak onetsi beharko ditu LSO planean egindako aldaketak edo egokitzapenak, aldaketa egikaritu baino lehen.

Proiekturik gabe

- OPKDaren kontrola eta segimendua helburu horretarako beste edozer euskarri dokumentalen bidez gauzatu da, esaterako obra bisitatzeko aktaren bidez...
- ESO koordinatzaileak ikuskatu beharko ditu OPKDan egindako aldaketak edo egokitzapenak.



Jabeen Erkidegoaren erantzukizuna da, sustatzaile den heinean, ESO koordinatzaileak bere funtzioak betetzen ez baditu: obraren segimendu falta, koordinazio eta kontrol falta...

4. fasea. Egikaritzea

Zer betebeharrak dauka kontratistak egikaritze-fasean?

Kontratistak koordinatu egin beharko ditu bere langileek eta berak kontratatutako enpresek (azpikontratistek) eta langile autonomoek gauzatutako jarduerak, horiek guztiek aldi berean lan egiteak eragin ditzakeen arriskuak kontrolatzeko xedez eta LSO planean edo OPKDan xedatutakoa beteaziz.

- Bere PZren aholkua eta laguntza izango du, edozer modalitatetan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak (LAPLaren 14. artikulua) haren langileei dagokienez exijitzen dizkion betebeharrak bete ditzan.
- LSO planean edo OPKDan xedatutakoari jarraikiz, kontratistak prebentzio-baliabide bat edo gehiago hautatuko edo esleituko du.

Proiektuarekin

- Lan Agintaritzari lantokia ireki izana jakinaraztea, lanak hasi baino lehen, onetsitako LSO plana helaraztearekin batera.
- Kontratistak LSO planaren kopia bana eman beharko die azpikontratistei eta langile autonomoei, eta entrega-data azpikontratazio-liburuan adierazi beharko du.
- Kontratistak LSO plana aldatu beharko du egikaritze-prozesuaren arabera, lanen bilakaeraren arabera eta obran sor daitezkeen balizko gorabeheren arabera.

Proiekturik gabe

- Lan Agintaritzari lantokia ireki izana jakinaraztea, lanak hasi baino lehen, LAEEa helaraztearekin batera (OPKDan jasotakoa).
- Kontratistak OPKDaren kopia bana eman beharko die azpikontratistei eta langile autonomoei, eta entrega-data azpikontratazio-liburuan adierazi beharko du.
- Kontratistak obraren une bakoitzeko baldintza jakinen arabera aldatu edo egokitu ahalko du OPKDa.



Lantoki Irekieraren Jakinarazpena arautzen du apirilaren 27ko TIN/1071/2010 Aginduak, lantokietan jarduerak irekitzeari edo berriz hasteari buruzko jakinarazpenek izan behar dituzten baldintzei eta datuei buruzkoak:

Aipatutako Aginduak exijitu egiten du obrarako arriskuen ebaluazio espezifiko bat aurkeztea OPKD baten aurkezpena, bertan LAEEa integratuta. Hala, dokumentu zabalago bat izanik, Lan Agintaritzak eskudunak ebaluatu beharko du haren egokitasuna.

4. fasea. Egikaritzea

Zer betebeharrak daukate enpresa azpikontratatuak eta langile autonomoak egikaritze-fasean?

Azpikontratatistak, bere langileei dagokienez, LAPari buruzko araudiak enpresariari galdatzen dizkion betebeharrak edukiko ditu. Horretarako, bere prebentzio-zerbitzuaren aholkua eta laguntza izango du, edozein modalitatetan.

- Azpikontratatistak LSO planean eta, hala badagokio, OPKDan xedatzen dena bete eta betearazi beharko du, bere mende dauden langileen multzoari dagokienez, langile autonomoak eta berak azpikontratatuak enpresak barne.
- Azpikontratatistak bermatu egin beharko du bere langileei obraren baldintza berezietara egokitutako informazioa eta prestakuntza helaraziko dizkiela (bereziki LSO planean eta OPKDan zehaztutako lan-prozedurak). Halaber, kontratatutako langile autonomoei informazioa eta jarraibide egokiak eman beharko dizkie.

Langile autonomoa behartuta dago LAPLaren 15. artikuluan zehaztutako prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatzera, arreta berezia jarrita EEDaren 10. artikuluan deskribatutako jardueretan. Halaber, konplitu egin beharko ditu LAPLaren 29. artikuluko 1. eta 2. ataletan langileei laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak. Langile autonomoak eraikuntza-obran gauzatzen duen jarduera proiektua duten obren LSO planean xedatutakora egokitu behar da; edo, proiekturik gabeko obren kasuan, OPKDan xedatutakora.

- Soldatapeko langileak kontratatzen dituen langile autonomoa autonomo-enpresarizat joko da, eta modu horretan azpikontratatista izatera pasako da.

Azpikontratatista nahiz **langile autonomo** guztiak kontratatistak emandako jarraibide guztiak bete beharko dituzte, bai eta ESO koordinatzaileak edo, hala badagokio, ZFak emandakoak ere.




ADMak kentzea: Desamiantatze-lanei ekin baino lehen, AEE enpresak Lan Agintaritzari aurkeztutako lan-egitasmoak haren onespena jaso beharko du, bai eta lanen hasieraren jakinarazpena igorri ere.

4. fasea. Egikaritzea

Nola heltzen zaio prebentzio-jarduerari egikaritze-fase horretan?

Egikaritze-fase jorretako kontrol- eta segimendu-jarduerak nagusiak (proiekturik gabeko obraren kasuan)¹ ondoko koadroan jaso dira:



¹ Proiektua duen obraren kasuan, eskema antzekoa da, onetsitako LSO planaren aldaerarekin, Gorabeheren Liburuaren bidezko segimenduarekin.

5. fasea. Amaiera

Sustatzaileak (kasu bakoitzari dagokion teknikari gaituaren bitartez) obraren harrera burutu baino lehen, egiaztatu beharko du, behin hura amaituta, bateragarria dela ezarritako erabilera eta mantentze-lanekin, behar bezalako segurtasun- eta osasun-baldintzetan. Horretarako, dagozkion agiriak eskatu beharko ditu, eta Jabeen Erkidegoari helarazi, azken erabiltzailea den neurrian.

Zer betekizun exijitu behar du Jabeen Erkidegoak sustatzaile gisa amaiera-fase horretan, kontratatutako obra onartu aurretik?

- Behin obra amaituta, sustatzaileak kontratupeko obraren segurtasun- eta osasun-baldintzak (instalazioak barne) behar bezala erabili eta mantendu direla bermatzen duen dagokion dokumentazioa eskatu beharko du.
- Informazio hori, halaber, gainerako Jabeen Erkidegoari helarazi beharko zaio, eraikitako objektuaren edo delako instalazioaren azken erabiltzaile diren neurrian.
- Aipatutako informazioa dokumentatzeko, kontuan hartuko da obra Eraikuntza Antolatzeko Legearen (EAL) aplikazio-esparruan kokatzen den ala, ostera, bertan ez dagoen edo proiektu bat idazterik eskatzen ez duen.

Proiektuarekin

- Informazioa Eraikinaren Liburuan jasoko da (EALaren aplikazio-esparruan kokatutako obrak).
- ZFak obraren amaieraren akta bat gauzatu beharko du, eta bertan lanak amaitutzat eman, horiek deskribatu eta bestelako alderdi interesgarri batzuk azalduko ditu.

Proiekturik gabe

- Obrak ez badu proiekturik eskatzen edo EALaren aplikazio-esparruan kokatzen ez bada, sustatzaileak emango du informazio hori, horretarako zehaztutako beste edozer euskarri dokumentalen bidez.



Nahiko arrunta da gai horiek behar bezala itxi gabe uztea, eta horrek hainbat arazo eragiten du geroago segurtasun- eta osasun-baldintza egokiei dagokienez, bai erabileran zehar eta bai mantentze-lanetan.

5. fasea. Amaiera

Zer dokumentazio eman behar dio kontratistak sustatzaileari behin obrak amaituta?

- Lanak amaitu direnean, ezarritako erabilera eta mantentze-lanak behar bezalako segurtasun- eta osasun-baldintzetan gauzatzeko informazioa helaraziko dio kontratistak Jabeen Erkidegoari: planoak, jarraibide-eskuliburuak, ziurtagiriak...
- Kontratistak eraikuntza-obraren Azpikontratazio Liburua gorde beharko du sustatzailearen eskutik jasotako enkargua erabat amaitu arte. Hala, obran izandako parte-hartzea bukatu eta bost urte geroago arte gorde beharko du. Gomendagarria litzateke, era berean, gainerako segurtasun-agiriak gordetzea.
- EALak aipatzen dituen eraikuntza obretan, behin obra amaitutakoan, kontratistak behar bezala beteta egongo den Azpikontratazio Liburuaren kopia bat emango dio obrako zuzendariari, Eraikinaren Liburuan txerta dezan, eta kontratistak berak gordeko du jatorrizkoa.



Amiantoa kentzeari dagokionez, lantokian esposizio-arriskurik ez dagoela egiaztatzeko, desamiantatzeaz arduratu den enpresak eremuko azken garbiketa- eta deskutsatze-lanak gauzatuko ditu, eta gomendagarria da horren eta kontratatzailearekiko adostasunaren txosten bat igortzea.

Laburdurak

JE	Jabeen Erkidegoa
ESO koordinatzailea	Obra egin bitarteko exekuzioko segurtasun- eta osasun-gaietako koordinatzailea
PSO koordinatzailea	Proiektua egin bitarteko segurtasun- eta osasun-gaietako koordinatzailea
ZF	Zuzendaritza fakultatiboa
OKPD	Obraren kudeaketa prebentiborako dokumentua
LAE	Lan-arriskuen ebaluazioa
LAEE	Lan-arriskuen ebaluazio espezifikoa
SO azterlana	Segurtasun- eta osasun-azterlana
SOOA	Segurtasuneko eta osasuneko oinarritzko azterlana
EAT	Eraikinen azterketa teknikoa
LAPL	Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa
AM	Amiantodun materialak
LSO Plana	Laneko osasun- eta segurtasun-plana
LAP	Laneko arriskuen prebentzioa
ED	1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen
AEE	Akreditatutako enpresen erregistroa
AAEE	Amianto-arriskuko enpresen erregistroa
PZE	39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena
PZ	Prebentzio Zerbitzua
LA	Langile autonomoa

ERANSKINAK

A1. GALDERA OHIKOENAK (FAQ)

A2. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

A3. KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA

A1. Galdera ohikoenak

Kontsulta gehienak argitalpen honetako aurreko ataletan erantzun dira, orokorrean. Nolanahi ere, erakunde honetan maiz jasotzen diren kontsulta batzuk sartu ditugu, esanguratsuak baitira.

JE bat gara, eta obra batzuk egingo ditugu; horretarako, bi eskaintza ditugu: bata, enpresa batena; bestea, langile autonomo batzuen. Zein litzateke egokiena sustatzaile bezala dugun erantzukizunaren ikuspuntutik?

JEak langile autonomoak kontratatzen dituenean –beren kargurako langilerik gabe eta, beraz autonomo-entresari enpresa bihurtuta–, sustatzaile ez ezik, kontratista ere izango litzateke, EDaren arabera. Horrek dituen ondorioak ikusita, sustatzaile ez-profesional batentzat ez da batere komenigarria horrelako kontratu bat egitea (halakoetan, JE sustatzaile-kontratista bihurtuko litzateke).

JE bat gara, eta obra bat egin nahi dugu hainbat gremio kontratatuta. Seguratasun-arloko arazorik sortuko litzateke?

JEak hainbat enpresa kontratista kontrata ditzake, arazorik gabe, baina kontuan izan behar da ESO koordinatzaileak koordinazio-lan konplexuagoak egin beharko lituzkeela. Koordinatzailea izendatu eta kontratatzerakoan, beraz, kontuan hartu behar da alderdi hori.

JE bat izanik, eskuordetu al dezakegu ESO koordinatzailearen ordainketa kontratistaren aurrekontuaren bitartez?

Koordinatzailearen figuraren izendapena nahitaezkoa da, eta sustatzaileak ezin die hori hirugarrenei eskuordetu edo transmititu, ezta kontratu bidez ere. Izendapena dokumentatu egin behar da, Jabeen Erkidegoaren legezko ordezkariaren sinaduraren bidez.

Koordinatzailea sustatzaileak izendatzen du, eta, beraz, kontratatzen. Hala, JEari dagokio kontratu horri loturiko ordainketak egitea. Betebehar hori ezin du hirugarrenen esku utzi.

JE bat gara, eta obra batzuk egingo ditugu. Zer erantzukizun hartzen ditugu gure gain?

JE batek sustatzaile denean laneko seguratasunaren eta osasunaren arloan hartzen dituen erantzukizunak ez daude finkatuta prebentzioari buruzko legeetan, baizik eta zehapen-izaerakoetan; beraz, **administrazio-arloko** eta **arlo zibil** edo **penaleko** erantzukizunak izan litezke, edo **gizarte-segurantzaren prestazio ekonomikoei buruzko errekarguak**.

JE bat gara, konponketa batzuk egin nahi ditugu fatxadetan, eta, horretarako, bi eskaintza ditugu: batean, aldamioa proposatzen dute; bestean, ordea, lan bertikalak. Zer sistema da egokiena?

Soka-bidez sartzeko eta kokatzeko teknikak erabiltzeko, nahitaezkoa da kontuan izatea ezen teknika horiek soil-soilik erabil daitezkeela baldin eta arrisku-ebaluazioan adierazten bada, batetik, lana hala egin daitekeela modu seguruan, eta, bestetik, ez dagoela inongo arrazoirik beste ekipo seguruagoak erabiltzeko.

A1. Galdera ohikoenak

JE bat gara, eta kontratako teknikari batek bere burua eskaini digu ESO koordinatzaile gisa kontrata dezagun. Hori egin daiteke?

Ez dago hori egiteko bateraezintasun legalik, baldin eta horretarako prestakuntza-betekizunak betetzen baditu. Baina, ez da batere komenigarria obraren koordinazio- eta prebentzio-lanak (jabetza ordezkatuz) kontratako pertsonalak egitea, epaile eta parte izango bailitzateke.

JE bat gara, eta arazo batzuk izan ditugu fatxada estaltzean, hirugarrenetikiko arriskuak direla eta. Kudeatu daiteke larrialdiko obra bat bezala?

Berez, badirudi larrialdikotzat kalifikatu daitekeela, betiere honela ulertuta zer den larrialdiko obra bat: esku-hartze azkar eta urgente bat eskatzen duen obra bat da, proiektu idatzirik ez duena, eta, ondorioz, SO azterlanik eta LSO Planik ere ez duena. Baina halakoetan ere nahitaezkoa da ESO koordinatzaile bat izendatzea.

Behin larrialdiko konponketak eginda, gainerako jarduketak ez dira larrialdikotzat kalifikatuko.

JE bat gara, eta egiten ari garen erreforma-obra batzuk direla eta, kontratistak esan digu zuntz-zementuzko zorrotzen agertu direla. Zer egin behar dugu?

Gerta liteke amiantoa duen elementu bat topatu izana (amiantoa izan dezaketen materialak AIDM). Material hori legeria espezifikoa arabera erretiratu ahal izateko, Amianto Arriskuko Enpresen Erregistroan (AAEE) erregistraturiko enpresa bat kontratatu behar da; dagokion lan-plana ere aurkeztu behar da, Lan Agintaritzak onar dezan, eta, gero, jarduketari hasiera emango zaiola komunikatu behar da.

JE bat gara, eta lanen jarraipenerako batzorde bateko kideak gara. Obretan sartzeko, betekizunen bat bete behar dugu?

Izendaturiko ESO koordinatzaileak edo, hala badagokio, ZFak, du ardura kontratistak obrara sartzeko proposaturiko prozedura balidatzeko eta gainbegiratzeko. Pertsona baimenduak soilik sar daitezke obrara, beharrezko diren segurtasun-neurriekin.

JE bat gara, eta proiekturik gabeko obra baterako bi aurrekontu nahiko ezberdin jaso ditugu. Zein aukeratu erabakitzeko, zer segurtasun-neurri hartu behar ditugu aintzat?

Aurrekontuetan, kontuan hartu behar da ea zer segurtasun-neurri proposatzen diren obrarako (babes kolektiboak, banakakoak, seinaleztapena....). Neurri horiek banakatuta agertu behar dute, neurketa eta kostuak adierazita.

JE bat gara, eta aldazio bat jarri behar dugu fatxadan obra batzuk egiteko, baina arazo batzuk ditugu beheko solairuko lokal batean (tailer bat da) merkataritza-jarduerak egiten direlako. Zer egin behar dugu segurtasunaren ikuspuntutik?

JEan lantoki bat dagonean, sustatzaileak jarduera-arriskuei buruzko informazioa eman behar dio, lehendabizi, proiektugileari edo teknikari eskudunari, eta, gero, ESO koordinatzaileak koordinazio-bitartekoak bultzatuko ditu bitartekaritza-lanak eginez sustatzailearen, kontratistaren eta jardueraren enpresa titullarraren artean.

A1. Galdera ohikoenak

JE bat gara, eta obra batzuk egingo ditugu bermealdian gertaturiko hutsune batzuk direla eta. Nork beteko du sustatzailearen figura?

Honela definitzen da sustatzailearen figura: obra bat bere izenean egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa (ED) edo eraikitzeko edo birgaitzeko lanak egitea erabakitzen, sustatzen, programatzen eta finantzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, publiko nahiz pribatua. Berdin izango da jardun hori bakarka edo taldean egiten duen, edo iraunkortasunez edo tarteka baizik egiten duen, bere baliabideekin edo beste baten baliabideekin, eta etxebizitza horiek berak erabiltzeko edo lanak egin ostean edozein tituluren bidez eskualdatzeko, lagatzeko edo emateko egiten ote dituen (EAL).

ANaren jurisprudentziak aitortu du sustatzaileak legitimazio aktiboa duela kontratistaren edo teknikariaren aurrean erantzukizun dezimala eskatzeko, alde batera utzita etxebizitzak hirugarrenei transmititu izana.

Familiaburua naiz, eta JEan obra batzuk egingo direnez, aprobetxatu nahi dut nire etxebizitzan ere erreforma bat egiteko. Zer baldintzatan kontratatu ditzaket langile autonomoak?

Familiaburuari ez zaio ezartzen JEari eskatzen zaiona. Izan ere, sustatzailea **familiaburua** denean, **ez da kontratistatzat hartuko** obra bat edo obrako lan jakin batzuk egiteko langile autonomoak zuzenean kontratatzen dituenean. Halakoetan, gainera, familiaburua ez dago behartuta azpikontratazioaren liburua edukitzera.

Obrak proiektuarekin edo gabe egiten diren, horren arabera dira familiaburuaren betebeharrak:

Proiektuarekin

- Familiaburuak proiektugile bat edo batzuk izendatuko ditu proiektua egiteko. Proiektuan, LSO edo SOOA azterlana sartuko da.
- Enpresaritzat jotzen ez diren langile autonomoak ez daude behartuta LSO plana egitera, ezta Lantokia Irekitzeko Jakinarazpena egitera ere.
- Enpresaritzat edo enpresa juridikotzat jotako langile autonomoak behartuta daude LSO plana egitera, baita Lantokia Irekitzeko Jakinarazpena egitera ere.
- Familiaburuak SO koordinatzaileak izendatuko ditu, hala badagokio.

Proiekturik gabe

- Proiekturik ez dagoenez, halakoetan ez dago ez proiektugilerik, ez PSO koordinatzailearik, eta, beraz, ez da ZFrik behar.
- Enpresari jotzen ez diren langile autonomoak ez daude behartuta LSO Plana egitera, ezta Lantokia Irekitzeko Jakinarazpena egitera ere.
- Enpresaritzat edo enpresa juridikotzat jotako langile autonomoak behartuta OKPDa egitera, baita Lantokia Irekitzeko Jakinarazpena egitera ere.
- Familiaburuak SO koordinatzaileak izendatuko ditu, hala badagokio.

A2. Araudia

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeria garrantzitsua.

Aplikatu beharreko araudi orokorra:

- **31/1995 Legea**, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- **39/1997 Errege Dekretua**, urtarrilaren 17koa, Prebentzio-zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena.
- **5/2000 Legegintzako Errege Dekretua**, abuztuaren 4koa, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duena.
- **171/2004 Errege Dekretua**, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- **TIN/1071/2010 Agindua**, apirilaren 27koa, lantokietan jarduerak irekitzeari edo berriz hasteari buruzko jakinarazpenek izan behar dituzten baldintzei eta datuei buruzkoa.
- **396/2006 Errege Dekretua**, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.
- **49/1960 Legea**, uztailaren 21ekoa, jabetza horizontalari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketak (azkena, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, hiri-birgaitzeari, -berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa).

Eraikuntzari buruzko araudi espezifikoak:

- **1627/1997 Errege Dekretua**, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.
- **32/2006 Legea**, urriaren 18koa, eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena.
- **1109/2007 Errege Dekretua**, abuztuaren 24koa, eraikuntza-sektorean azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legea garatzekoa.
- **Ebazpena**, 2013ko azaroaren 8koa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, eraikuntza-sektoreko V hitzarmen kolektibo orokorra erregistratu eta argitaratzeari buruzkoa.

Eraikuntza:

- **38/1999 Legea**, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa (EAL).
- **314/2006 Errege Dekretua**, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duena.
- **Udal ordenantzak**, higiezina kokatuta dagoen herrikoak.

A3. Bibliografia eta erreferentziak

OSALANEN ARGITALPENAK

ERAIKUNTZA-LANAK EGIN BITARTEKO OSASUN- ETA SEGURTASUN- -KOORDINATZAILEAREN GIDALIBURU PRAKTIKOA (OSALAN_2007)

SEGURTASUN PRAKTIKOA ERAIKUNTZAN (OSALAN_2009)

JABEEN ERKIDEGOETAN EGITEN DIREN OBRAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA (OSALAN_2012)

ERREFERENTZIAK

ERAIKUNTZA-LANETAN LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA INTEGRATZEKO OINARRIZKO GIDALERROAK (LSSBN_2014)

1627/97 ERREGE-DEKRETUA APLIKATZEA PROIEKTURIK GABEKO LANETAN. Eraikuntzako lan-taldea-Proiekturik gabeko lanetako azpitaldea (LSSBNaren 2013ko abenduaren 12ko batzarrean onartua)

OBRA TXIKIETAKO EZBEHARRAK ETA HORIEN KAUSAK AZTERTZEA. Eraikuntzako lan-taldea-Proiekturik gabeko lanetako azpitaldea (SSBN_30/10/2015)

NTP-1071. Proiekturik gabeko lanetako segurtasun- eta osasun-kudeaketa (I): jarduera ezberdineko lantoki batean (LSSBN_2016)

NTP-1072. Proiekturik gabeko lanetako segurtasun- eta osasun-kudeaketa (II): jabeen erkidego batean (LSSBN_2016)

KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA

ZURE JABEEN ERKIDEGOAK BETETZEN AL DU LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARAUDIA? (Asturiaseko Institutua-LAP_2009)

AUZOTARREN ERKIDEGOETAKO OBRETAN KUDEAKETA PREBENTIBOA EGITEKO GIDALIBURU PRAKTIKOA (IRSST_2012)

AUZOTARREN ERKIDEGOETAKO OBRETAN KUDEAKETA PREBENTIBOA EGITEKO GIDALIBURUA (COAATIEMU_2013)

JABEEN ERKIDEGOETAKO EDO ETXEBIZITZA PARTIKULARRETAKO OBRAK (Asturiaseko Institutua-LAP_2014)

BIRGAITZE- ETA MANTENTZE-LANETAKO SEGURTASUNERAKO ETA OSASUNERAKO GIDALIBURU PRAKTIKOA PROIEKTURIK GABEKO LANAK (Col·legi d'Aparelladors, Arquitectes Tècnics i Enginyers d'Edificació de Barcelona_2016)